memorian jasotzea, espresuki adieraziz elizatik 15 metro baino gutxiagora edozein esku-hartze egiteko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren baimena behar dela.

3.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legean eta agindu honetako bosgarren oinarrian zehaztutako toki sistemen sareko nahitaezko lagapenen definizioa eta zenbatespena justifikatzea.

4.- Haztatutako eraikigarritasunaren % 15, urbanizazio kargarik gabe, udalari dohainik lagatzeko eginbeharra jasotzea, hirigintza jardunak sortzen dituen gainbalioetan komunitateak duen partaidetza aldatzen duen 11/2008 Legearen artikulu bakarra betetzeko.

5.- Kudeaketa geroan aurrera eramateko aurreikusitako egikaritze unitateen denbora antolamendua finkatzea, 131. b) artikuluan xedatutakoari jarraituz. Horrek urbanizatze ekintzaren programa (2/2006 Legearen 135. artikulua), urbanizazio proiektua eta birlurzatikatze proiektua onestea beharko du.

6.- Elizaren ondoko berdegunea mantentzea, ahal den neurrian derrigorrezko lagapenak Santa Eulalia elizatik hurbilen dagoen alderdian kokatzen saiatuz eta, gainera, dagoen kota desberdintasuna kontuan edukita, oraingo orografiari eusteko eta elizako ingurunearen irudia errespetatzeko helburuaz.

Bigarrena.- Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, bateratutako testua osatuta, berriro jendaurrean jarri beharrik gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena.- Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Haren aurka, partikularrek ondoko errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahal izango dute, beren interesak aldezteko bidekotzat jotzen duten beste edozein neurri hartzea eragotzi gabe:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietarako sailean. Horretarako, bi hilabete izango dira, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa, interesdunen aldetik (beste administrazio batzuen aldetik, errekerimendua), ebazpena hartu duen organo berari. Hilabete izango da horretarako, hura argitaratu edo jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko uztailaren 28a.– Hirigintza eta Ingurumen Saileko Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

la Iglesia de Santa Eulalia de Vitoria, indicando expresamente que cualquier intervención a menos de 15 metros de la Iglesia requiere autorización del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3.- Justificar la definición y cuantificación de las cesiones obligatorias de la red de sistemas locales especificados en la Ley 2/2006, del Suelo y Urbanismo y en el fundamento quinto de esta Orden.

4.- Reflejar la obligación de ceder gratuitamente al ayuntamiento el 15% de la edificabilidad ponderada, libre de cargas de urbanización, en cumplimiento del artículo único de la Ley 11/2008, por el que se modifica la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística.

5.- Fijar la organización temporal de las unidades de ejecución previstas para el futuro desarrollo de la gestión, conforme al artículo 131.b), la cual requerirá la aprobación del programa de actuación urbanizadora (artículo 135 de la Ley 2/2006), el proyecto de urbanización y el proyecto de reparcelación.

6.- Mantener la zona verde colindante a la Iglesia, procurando, dentro de lo posible, ubicar las cesiones obligatorias en la parte más próxima a la Iglesia de Santa Eulalia, teniendo en cuenta además la diferencia de cota existente, en aras de mantener la orografía actual y respetar la imagen del entorno de la Iglesia.

Segundo.- La condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, constituyendo un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Tercero.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Cuarto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 2011.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**4897**

**14/2011 FORU AGINDUA, uztailaren 28koa, behin betiko onarpen partziala ematen diona Mañuetako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedienteari. Espediente horren helburua da Las Eras eta La Serna kaleen eta 3. poligonoko 267 lurzatiaren lerrokadurak aldatzea, OR-1, 2, 3 eta 4 ordenantzetan upeltegiko erabilerarako gehieneko altueraren definizioa ematea eta txoko-merenderoa eta sasoikako langileen ostatua izeneko erabilerak sartzea.**

I.- AURREKARIAK

Lehena.- 2010eko irailaren 30ean Mañuetako Udalak hasieran onartu zuen Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea. Izan ere, honako aldaketak egin nahi ziren: Las Eras eta La Serna kaleen eta 3. poligonoko 267 lurzatiaren lerrokadurak aldatu, OR-1, 2, 3 eta 4 ordenantzetan upeltegiko erabilerarako gehieneko altueraren definizioa eman eta txoko-merenderoa eta sasoikako langileen ostatua izeneko erabilerak sartu. Espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, iragarki bana jarrita 115. zenbakiko ALHAOn (2010eko urriaren 18koa), El Correo egunkarian (2010eko urriaren 7koa) eta udaletxeko iragarki taulan.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**4897**

**ORDEN FORAL 14/2011, de 28 de julio, de aprobación definitiva parcial del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento municipal de Baños de Ebro, relativa a las alineaciones de las calles Las Eras, La Serna y de la parcela 267 del polígono 3, definición del parámetro de altura para el uso de bodega de las Ordenanzas OR-1, 2, 3 Y 4 e inclusión de los usos txoko-merendero y alojamiento de temporeros.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 30 de septiembre de 2010, el Ayuntamiento de Baños de Ebro acordó aprobar inicialmente el expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, relativa a las alineaciones de las calles Las Eras, La Serna y de la parcela 267 del polígono 3, definición del parámetro de altura para el uso de bodega de las ordenanzas OR-1, 2, 3 y 4 e inclusión de los usos txoko-merendero y alojamiento de temporeros, así como someter el mismo a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA número 115, de 18 de octubre de 2010, en el periódico El Correo, de 7 de octubre de 2010, y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Halaber, ALHAOko aurreko iragarkian antzemandako okerra zuzentzeko iragarkia 131. zenbakiko ALHAOn (2010eko azaroaren 17koa), El Correo egunkarian (2010eko azaroaren 18koa) eta udaletxeko iragarki taulan agertu zen.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jarri zen bitartean inork ez zuen alegaziorik aurkeztu eta, ondorioz, udalak 2011ko urtarrilaren 21eko bilkuran espedientea behin-behinean onartu zuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidali zion.

Hirugarrena.- Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeak 91.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Planeamendu Atalak aldeko iritzia agertu zuen, apirilaren 16ko 2/2011 bilkuran.

Laugarrena.- Mañuetako Udalak Arabako Foru Aldundiari bidali zion espedientea (sarrera eguna: 2011ko maiatzaren 12a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

Bosgarrena.- 2011ko maiatzaren 23an Mañuetako Udalak espedientearen gaineko dokumentazio osagarria bidali du Arabako Foru Aldundira, 2011ko maiatzaren 16an eskatutakoa betez.

Seigarrena.- Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betez, espediente horren inguruko txostena eman zuen Arabako Hirigintza Batzordeak, bere 4/2011 bilkuran, uztailaren 14an.

II.- OINARRIAK

Lehena.- Mañuetako Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espediente hau udalak berak sustatu eta izapidetu du. Hauexek dira espedientearen helburuak:

1) Las Eras eta La Serna kaleetako bideen lerrokadurak aldatzea, kale hiritarragoak egin daitezen bultzatzeko.

2) 3. poligonoko 267 lurzatiko lerrokadurak aldatzea, ahalik eta gehien aprobetxatzeko udal igerilekuen inguruan dagoen eta aisialdirako erabil daitekeen azalera.

3) Hein batean aldatzea hiri lurzoruko gehieneko altuera, upeltegiek jarduera garatzeko behar duten altuera izan dezaten.

4) Dagoeneko OR-4 ordenantzan sartuta dauden txoko-merenderoa eta sasoikako langileen ostatua izeneko erabilerak sartzea OR-1, 2 eta 3 ordenantzetan.

Bigarrena.- Aldaketak sartuko dira hurrengo irizpideak oinarritzat hartuta:

1) Udalaren ustez, Las Eras eta La Serna kaleetako lerrokaduren aldaketa hiri lurzoru tradizionalak berez behar duen garapena da, lerrokaduretako batek egun duen atzeragunea kenduko delako, OR-2 ordenantzan jaso bezala. Kalearen gutxieneko zabalera bat dator Las Eras kalearen ibilgailuen eta oinezkoen kaleko S-2 sekzioarekin eta La Serna kalearen S-3 sekzioarekin. NR-58-M planoan zehaztuta daude.

2) Udalaren irizpide bera aplikatzen da udal igerilekua dagoen lurzatian, Las Piscinas izeneko kalera begira, kirol ekipamendurako egingo den eraikinaren lerrokaduran. Horrela, etorkizunean igerilekuaren ontzia aldatu ahal izango da, aurreikusi bezala.

3) Egungo eraikuntzaren gehieneko altueren barruan, upeltegien erabilerek pisuen arterako ezarri diren altuerak betetzen ez badituzte lanketa prozesu egokia egiteko beharrezkoak diren altuerak ezarri ahal izango dira; izan ere, sarri egun pisu arterako ezarri den gehieneko garaiera baino eta eraikuntzaren gehieneko altuera baino altuagoa behar izaten da.

4) Txokoa eta sasoikako langileen aldi baterako ostatua izeneko erabilerak bere definizioa dute erabileren sailkapenaren kapituluan, eta ordenantzetan aplikatzen dira. Erabilera horiek sartzeko justifikazio moduan esan daiteke gorakada izan dutela eta, horrenbestez, ostatuak egokitzeko laguntza publikoei dagokienez arautu behar direla ostatu horiek 248/2006 Dekretuan xedatutakoa bete dezaten. Era berean, egoitza moduan erabiltzeko eraikinei atxikita gero eta gehiago ikusten diren merendero instalazioak ere arautu behar dira, horien kokalekua, kanpoko sarbideak eta haietan dagoen eraikinaren egoitza erabilerarekin duten lotura zehaztu behar dira.

Asimismo, una vez advertido error en el anterior anuncio del BOTHA, la correspondiente corrección del mismo se expuso en el BOTHA 131, de 17 de noviembre de 2010 y en el periódico El Correo, de 18 de noviembre de 2011, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada ninguna alegación, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 21 de enero de 2011, a aprobar provisionalmente el expediente y remitirlo a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

Tercero.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo u Urbanismo, fue informado por la Sección de Planeamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en su sesión 2/2011, de fecha 16 de abril.

Cuarto.- El Ayuntamiento de Baños de Ebro remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, si procediere, donde tuvo entrada el día 12 de mayo de 2011.

Quinto.- Con fecha 23 de mayo de 2011, el Ayuntamiento de Baños de Ebro ha remitido a la Diputación Foral de Álava documentación complementaria del expediente, que le fue solicitada el 16 de mayo de 2011.

Sexto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 4/2011, de 14 de julio.

II.- FUNDAMENTOS

Primero.- El presente expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de planeamiento de Baños de Ebro, promovido y tramitado por su Ayuntamiento, tiene los siguientes objetivos:

1) Modificar las alineaciones a viario de las calles Las Eras y La Serna para favorecer la formación de calles de carácter más urbano.

2) Variar las alineaciones de la parcela 267 del polígono 3 para aprovechar la máxima superficie posible destinada a área de esparcimiento en torno a las piscinas municipales.

3) Modificar parcialmente el parámetro de altura en Suelo Urbano para permitir que las bodegas puedan alcanzar la altura suficiente para el desarrollo adecuado de su actividad.

4) Incluir el uso de txoko-merendero y alojamiento de personal temporero, ya existente en la Ordenanzas OR-4, en las ordenanzas OR-1, 2 y 3.

Segundo.- Se introducen las modificaciones en base a los siguientes criterios:

1) La modificación de las alineaciones en la calle Las Eras y La Serna, a juicio del ayuntamiento conforma un desarrollo propio de un suelo urbano tradicional al eliminar el actual retranqueo de una de sus alineaciones, seguida por la Ordenanzas OR-2. La anchura mínima de la calle se ajusta a la sección S-2 para calle con coexistencia rodado peatonal para la calle Las Eras y a la Sección S-3 para la calle La Serna, definidas en el plano NR-58-M.

2) El mismo criterio municipal se aplica en la alineación de la posible edificación para equipamiento deportivo en la parcela que alberga la piscina municipal, en su frente a la calle Las Piscinas, permitiéndose así una futura y prevista actuación de modificación del actual vaso de piscina.

3) Dentro de las actuales alturas máximas de la edificación el no tenerse que adecuar a los usos de bodega dentro de la misma a las ya definidas alturas entre pisos, lo que permite establecer las necesarias para un correcto proceso de elaboración, que muchas veces requerirá una medida superior a la altura máxima entre pisos actualmente definida, así como al parámetro de altura máxima de la edificación.

4) Los usos de txoko y de alojamiento temporal para temporeros, aparecen con definición propia en el capítulo de clasificación de usos, así como su aplicación en las distintas ordenanzas, Se justifica su introducción al tratarse de usos en auge que han de regularse en relación con las ayudas públicas para la adecuación de los alojamientos citados que cumplan lo dispuesto al respecto por el decreto 248/2006 y en relación con las cada vez más numerosas instalaciones de merenderos anejos a los edificios residenciales, necesitando a su vez, una regulación de su situación, accesos exteriores y relación con el uso residencial del edificio que los acoge.

Hirugarrena.- Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du eraikuntzaren gehieneko altuera araututa ez egoteak eragina izan dezakeela historia eta kultura ondarean, bai eraikinei bai hiri inguruari dagokienez. Eragin hori, gainera, oso txarra izan daiteke batez ere eraikuntza finkatuan eta haren inguruan, OR-1 ordenantzak arautu duen finkatutako eta taldekatutako egoitza eremuan. Horrez gain, gehieneko altueraren parametroa ezin da alde batera utzi gainerako eremu kalifikatuetako erabilera jakin batzuetan.

Laugarrena.- Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak La Sernako bideari buruz adierazi du osorik dagoela inskribatuta Arabako Foru Aldundiko Bideen Erregistroan (60-04-011-001-40 zenbakiarekin). Udala da, beraz, haren titularra eta honek hasi beharko du kanpoan uzteko espedientea. Halaber, udalerriko Ureztatzaile Elkartearen azpiegiturei eragin ahal zaien ere egiaztatu behar dela adierazi du.

Bosgarrena.- Horrenbestez, aurkeztu den espedienteak aldeko zehapena merezi du, hurrengo puntuetan izan ezik:

- Jatorrizko kotatik gorako altuera, gehienez: Egungo 9 metroko altuera mantenduko da OR-1 ordenantzak arautzen duen eremuan, baita upeltegiaren erabilerari dagokionez ere.

- Gainerako eremuetan egungo gehieneko altueraren parametroa aldatu ahal izango da, baina beti ezarriko da balio jakin bat.

Seigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, apirilaren 18ko 2/2011 bilkuran, ez du inolako trabarik jarri, bere txostenean lotesleak diren alderdietan, espedienteak aurrera egin dezan.

Zazpigarrena.- Espedientea Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 90. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehena.- Behin betiko onartuko da Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko espedientea, Las Eras eta La Serna kaleen eta 3. poligonoko 267 lurzatiaren lerrokadurak aldatzeari, OR-1, 2, 3 eta 4 ordenantzetan upeltegiko erabilerarako gehieneko altueraren definizioa emateari eta txoko-merenderoa eta sasoikako langileen ostatua izeneko erabilerak sartzeari buruzkoa. Hala ere, baldintza hauek bete behar dira:

- Jatorrizko kotatik gora dagoen 9 metroko gehieneko altuera aplikatuko da eraikuntza multzokatuaren OR-1 eremuan, baita upeltegiaren erabilerari dagokionez ere.

- OR-2, OR-3 eta OR-4 eremuetan ezarri diren gehieneko altuerak mantenduko dira; hala ere, udalak alda ditzake, baina betiere gehieneko altuera bat ezarrita.

Bigarrena.- Foru agindu honen laugarren oinarrian azaldutako aldaketak sartuko dira.

Hirugarrena.- Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio (testu bateratua izango dela), berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Laugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek beren interesak defendatzeko abiaraz dezaketen beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen organo berberari. Horretarako, hilabeteko epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko uztailaren 28a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Tercero.- El Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico del Departamento de Euskera, Cultura y Deportes, informa sobre la posible incidencia que la desregulación de la altura máxima edificada puede tener en el patrimonio histórico-cultural tanto en relación con los edificios como con el entorno urbano, incidencia que puede ser muy negativa sobre todo en la edificación consolidada y su entorno en el ámbito residencial consolidado agrupado regido por la Ordenanza OR-1. Además, el parámetro de máxima altura no puede omitirse para usos determinados en el resto de los ámbitos calificados.

Cuarto.- El Servicio de Desarrollo Agrario, del Departamento de Agricultura, respecto del Camino de la Serna indica que está inscrito en su totalidad en el Registro de Caminos de la Excma. Diputación Foral de Álava con el nº 60-04-011-001-40 siendo el Ayuntamiento su Entidad titular, por lo que el Ayuntamiento deberá iniciar el expediente de exclusión del mismo. Indica, asimismo, la necesidad de constatar la existencia o no de algún tipo de interferencia con las infraestructuras titularidad de la Comunidad de Regantes del municipio.

Quinto.- En consecuencia, el expediente presentado merece una sanción positiva, excepto en los siguientes puntos:

- Altura máxima sobre la cota de origen: La actual de 9 m. quedará inalterada en el ámbito regido por la Ordenanza OR-1 incluso para el uso de bodega.

- En el resto de los ámbitos podrá modificarse el parámetro actual de altura máxima, pero siempre tendrá una valor determinado.

Sexto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su sesión 2/2011, de 18 de abril, no ha puesto objeción al expediente en los aspectos en que su informe es vinculante.

Séptimo.- El expediente ha sido tramitado según lo dispuesto en el artículo 90 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, relativa a las alineaciones de las calles Las Eras, La Serna y de la parcela 267 del polígono 3, definición del parámetro de altura para el uso de bodega de las ordenanzas OR-1, 2, 3 y 4 e inclusión de los usos txoko-merendero y alojamiento de temporeros, con las siguientes condiciones:

- La altura máxima sobre la cota de origen actual de 9 metros será de aplicación en el ámbito OR-1 de Edificación Agrupada incluso para el uso de bodega.

- Se mantendrán las actuales alturas máximas definidas en los ámbitos OR-2, OR-3 y OR-4, sin perjuicio de que el Ayuntamiento las modifique, siempre y cuando se establezca una altura máxima.

Segundo.- Se incluirán las modificaciones que se han explicitado en el fundamento cuarto de la presente Orden Foral.

Tercero.- La condiciones señaladas no son sustanciales, por lo que una vez subsanadas se elevará el expediente a la Diputación Foral, constituyendo un texto refundido, sin necesidad de someterlo a un nuevo trámite de información pública, con el fin de declarar su ejecutoriedad y proceder a su diligenciación y publicación.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Quinto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 2011.– La Diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.